

Eskola euskaldun publiko bat



Ruben Sánchez
Bakaikoa
IRAKASLEA
@arlotea

bilaldia 1986. Baldin Bada taldearen kantaren hitzak: “Bat eta bera nahikoa euskararentzat ere, aukera publiko bat”.

Eusko Jaurlaritzatik bultzaturiko hausnarke-ta daukagu mahai gainean. Badirudi hitzarmen estrategikoa izateko asmoa duela, eta beldur naiz EAEn (Euskal Autonomia Erkidegoa) mamiari helduko diogun edo bakoitzak bere *txiringittoa* blindatzera joko duen.

Mamia da milaka umeren hezkuntza EAEn. Dena. Abiapuntua ez da oso ona. Barneratu dugu –kristautasunaren izenean, kooperatibismoaren izenean, pedagogiaren izenean, gurasoen aukeratzeko eskubidearen izenean– ume batzuek X hezkuntza, beste batzuek Y eta besteek Z izatea.

Euskararen bidea –irakaskuntzan ere– ez da orain arte samurra izan. Eta bai, etsaiak izan ditu, etxean eta estatuetan. Baina EAEn, gaur eta hemen, ez badugu indarrean jartzeko sistema bat murgiltze linguistikoa ezartzen duena ume guztientzat, euskararen biharko arazoentzat hazia ereiten ariko gara gaur.

A, B eta D ereduak justifikatu izan dira gurasoen erabakitzeko eskubidean, baina gaur egun A ereduko eskola publikoei guraso heldu berriak hara “bideraturik” eusten diete.

Ez daukagu erraza, hala ere, “bat eta bera nahiko”-ra iristeko. Lehen arazoa da nekez konbentzitu-tuko ditugula eskola kontzertuetako komunitateak beren status pribilegiaduna uzteko, ume guztientzako eskola publiko hobe baten mesedetan.

Ez dute nahi. Finantziario bikoitza izateak –diru publikoa eta familien kuotak– abantailak ematen dizkie bakoitzak bere *txiringittoa* sinesten duenaren arabera antolatu eta gizartean baliabide gutxien dauzkaten pertsonen seme-alabak patioan ez izateko –herri gutxi batzuetako zenbait eskola kontzertaturen salbuespenez, arau orokorra da–.

Ikasleen erdia kontzertatuetan daude, eta aliatu bilatzekotan, karitate kristauan gutxi sinesten dudanez, gertukoena Ikastolen elkarteak dira. Nik galdetzen dut, bat egin ahal dugu eskola euskaldun publiko “baldin bada”:

– Murgiltze eredu bakarrekoa?
– Ikastolen Elkartean izan duten autonomia gutxienez –eta ahal bada gehiago– izango duena –eta gainera haien ondare pedagogikoa publikora ere ekarri–?

– Orain arte haiek finantziario bikoitzaren bidez izan dutena finantziario publiko hutsez izango duena?

– Eta, ikastolen elkarteak beharra duten lurraldeetan (Seaska, Nafarroa, Trebiñu...). Ikastolen elkarteak emandako laguntza ematen jarraituko duguna?

Ez dut ezer suntsitzerik nahi, Ikastolen Elkartean aliatu bila ari naiz bihar euskaldun izan daitezten ume “eskandinaviar blondak, korearrak eta swahili beltzak”. Bultzatu dezagun eskola euskaldun publiko bat. Eta hori nahi ez duen helduak ordaindu dezala osorik berak nahi duen eskola pribatua. ■

Zaintza, emakumeon zama



Itziar Bardaji
Goikoetxea
IRAKASLEA

Kapitalismoak geure iruditegia kolonizatzen du: aurreko mendean gizonak soldata ekartzen zuen eta andrea etxean zegoen. Gaur aldiz, emakumea lan merkatuan txertatu da eta gizonetzkoek gero eta gehiago “laguntzen” dute etxean.

Ipuin horri makillaje geruza leuna kenduta: lehenik eta behin, gure amonak obrero izan dira lantegietan, nekazari landetan, etxeko andre soila izatea gutxiengo baten luxu zelarik.

Ados, gauza batzuk aldatu dira. Aipa ditzagun ilunenak. Gizonezkoen espazioen konkistari heldu genion, eta zaintzari uko egiteko eskubidearekin amets egin genuen. Emakume ausart asko

gizonezkoen eremu arrotzean, haien moduak eta baliabideak hartuta, kapitalismo matxistaren kitarra azalean itsaskor geratzen zaielarik, arrakaluetan zehar espazio berriak irekitzen dihardute.

Bitartean, emakume “arrakastatsu” horiek egingen ez dituzten zaintza lanak enplegu prekarioen bidez betetzen dira, non gizonezkoak anekdotikoak diren. Gero, agureak gorpil-aulkietan paseatzen dituzten emakume emigranteek, jasotako euro eskas preziatuz, beste emakumeen zaintzapean utzitako familiak sostengatuko dituzte. Emakumeak emakumeen zerbitzura. Bizirau-penaren ardura bere baitan, gure gain. Zama ez dugu kendu. ■